FREMAP
Mutua Colaboradora con la Seguridad Social nº 61

# HERIOTZAGATIK SORTUTAKO ETA JASO GABEKO PRESTAZIOEN ESKAERA

Inprimaki hau behar bezala ez betetzeak edo adierazitako dokumentuak ez aurkezteak akatsak edo informazio falta derrigor zuzendu beharra ekar dezake; halakoetan, izapideak ez du aurrera egingo okerrak zuzendu arte.
Idazten hasi aurretik, irakurri goitik behera agiriaren atal guztiak eta betetzeko jarraibideak.
Aldez aurretik hitzordua eskatu dezakezu hurbilen duzun FREMAPen asistentzia-zentroan, zure enpresak FREMAPen duen kudeatzaileari eskatuta edo 900 610 061 telefonora deituta. Hitzordu egunean, dokumentazio hau behar bezala beteta aurkeztuko da. Bestela, dokumentuak posta bidez bidali eta FREMAPek hitzordua emateko deitu arte itxaron dezakezu.

## 1.- ESKATZAILEAREN DATUAK

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen abizena | Bigarren abizena | Izena | | | | |
| NAN-AIZ-Pasaportea | Ohiko bizilekua: (kalea, plaza) | Zenbakia | Blokea | Eskailera | Solairua | Atea |
| Posta-kodea | Herria | Probintzia | | | | |
| Herrialdea | Posta-kutxa | Telefonoa | Eskuko telefonoa | | | |
| Posta elektronikoa | Ahaidetasuna hildakoarekin | | | | | |

## 2.- HILDAKOAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| Lehen abizena | Bigarren abizena | Izena |
| Jaioteguna | NAN-AIZ-Pasaportea | Gizarte Segurantzako Afiliazio zenbakia |
| Heriotza-data | Aitaren izena | Amaren izena |

## 3.- ESKATZEN DIREN HILEKOAK, ALDIAK EDO ORDAINKETAK

## 4.- PRESTAZIOA KOBRATZEKO DATUAK (CCC)

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Erakunde ordaintzailearen izena | | | | |
| BANKUAREN DATUAK | ENTITATEA | BUL./SUKURTSAL | KONTROL D. | KONTU-ZENBAKIA |

**ADIERAZTEN DUT:**

**(1)** ☐ Ez dagoela hildakoaren ezkontiderik edo bizirik dagoen ondorengorik.
**(2)** ☐ Ez dagoela hildakoaren ezkontiderik edo bizirik den haren aurrekorik edo ndorengorik. Eskabide honetan ematen ditudan datuak egiazkoak direla.

**ESKATZEN DUT:** Jaraunsle naizen aldetik legitimatuta, hildakoak sortu eta jaso ez dituen prestazioak ordain diezazkidatela, jaraunspen-erkidegoaren mesedetan. Horretarako, atzealdean zerrendatutako dokumentazioa aurkezten dut.

(e)n, (e)ko ren (e)(a)n

Eskatzailearen sinadura,

**(1)** Adierazi gurutze batekin eskatzailea hildakoaren aurreko ahaidea denean.
**(2)** Adierazi gurutze batekin eskatzailea hildakoaren laugarren mailarainoko nahitaezko jaraunsle denean.

**DOKUMENTAZIOA BIDE DIGITALETIK BIDALTZEA:** Eskaera hau ziurtagiri digitalaren bidez sinatu eta posta elektronikoz bidali ahal izango da; bestela, eskatzaileak sinatutako originala aurkeztu behar da. Dokumentazio osagarria ere posta elektronikoz bidal daiteke eta pdf formatuan egon beharko du; izan ere, beste edozein formatutan (TIFF, adibidez) jasotzen diren dokumentuak baztertu egingo dira, biltegiratze-tamainagatik.

Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean ezarritakoari jarraikiz, jakinarazten dizugu emandako datu pertsonalak FREMAPek, GIZARTE SEGURANTZAREN 61 ZK.DUN MUTUA KOLABORATZAILEAK (egoitza soziala: Pozueloko errepidea 61, 28222 Majadahonda – MADRIL) tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun den aldetik.
Zure datuak jasotzearen eta horien tratamenduaren helburua da Mutuak aginduta dituen prestazioak eta indarrean dagoen araudiaren arabera izan ditzakeenak kudeatu ahal izatea, tratamendua beharrezkoa denean legezko betebeharra betetzeko. (aipatu Erregelamenduaren 6.1 c) artikulua eta, hala badagokio, 9.2 b) artikulua).
Era berean, jakinarazten dizugu datuak ez dizkiegula hirugarrenei utziko edo transferituko. Salbuespena izango dira legez derrigortuta gauden kasuak.
Datuak beharrezko denboran zehar gordeko dira jaso ziren helbururako. Horrez gain, etorkizunean agertu daitezkeen ardurak zehazteko eta erreklamazio prozesuei erantzuteko ere gordeko dira.
Datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, tratamenduaren aurka egiteko, eramangarritasunerako, tratamendua mugatzeko eta automatizatutako banakako erabakien objektu ez izateko eskubideak erabil daitezke, idazki bide jakinaraziz arestian aipatutako helbidera edo honako posta elektroniko honetara: derechos_arco@fremap.es. Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarria eskura duzu hemen: www.fremap.es.
Era berean, Kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazioak aurkezteko eskubidea jakinarazten dugu (Datuen Babeserako Espainiako Agentzia: www.aepd.es).

# ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

**1.- Alarguna, seme-alaba, ondorengoa edo, halakorik ezean, hildakoaren aurrekoa bada:**

- Hildakoaren heriotza-aktaren ziurtagiria
- Erregistro Zibilaren ziurtagiria edo familia-liburua, hildakoaren nahitaezko jaraunslea dela egiaztatzeko.

  Alarguntasun- edo zurztasun-pentsioa eskatu baduzu, ez duzu aurreko dokumentazioa aurkeztu beharrik.

**2.- Auto judizial bidez deklaratutako jaraunslea bada eta ez badago 1. paragrafoan jasota.**

- Jaraunsleak deklaratzeko lekukotza edo auto judiziala.

**3.- Testamentu bidez izendaturiko jaraunslea bada eta 1. paragrafoan jasota ez badago.**

- Hildakoaren heriotza-aktaren ziurtagiria.
- Azken Nahiaren Egintzen Erregistro Orokorraren ziurtagiria.
- Azken testamentuaren jatorrizkoa eta kopia.

**4.- Hildakoaren nahitaezko jaraunslea bada eta 2. edo 3. ataletan ez bada sartuta.**

- Hildakoaren heriotza-aktaren ziurtagiria.
- Azken Nahiaren Egintzen Erregistro Orokorraren ziurtagiria.
- Erregistro Zibilaren ziurtagiria edo familia-liburua, hildakoaren jaraunslea dela egiaztatzeko.

**OHAR**
**GARRANTZITSUA**

**Gogoan izan Gizarte Segurantzari egiten diozun eskaera honen onarpenetik eratorritako zenbatekoak Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotuta daudela, abenduaren 18ko 29/1987 Legean xedatutakoari jarraituz (1987-12-19ko BOE).**